


Astekaria



elgoi



Lanerako oztoporik gabe




BLANCA LARRAÑAGA

Ibaitarte industrialdea, A-6 eraikuntza
Tel. 74 35 51 • 20870 ELGOIBAR

Orduak: 3-7,30

FOTOKOPIAK
ANPLIAZIOAK
ERREDUKZIOAK
ITZULPENAK
PLANOAK
ENKUADERNAKETAK

**KOLOREETAKO
LASER FOTOKOPIAK**



SAN MIGEL AYZOKO JAIAK

23 LARYNBATA

GAZTEEN EGYNA

12,00: Jaien hasiera iragarritz, kanpai jotzea eta txupinazoa.

13,00: La Unión elkarteak antolatutako Ehiza Txapelketaren sari banaketa.

14,30: Auzoko GAZTEEN BAZKARIA trikitilariekin.

Arratsaldean, JOLASAK ETA TXOKOLATADA auzoko txikitxoentzat.

23,30: ROCK KONTZERTUA EHUN KILO, TAUPADA eta TRIKITIXA KONTRAIRO taldeekin.

30 LARYNBATA

22,00: IDI DEMAK

Bikoteak: Belarreta, Iketza eta Artadialde.

Sariak: 1- 125.000 pta

2- 110.000 pta

3- 100.000 pta

Ondoren, gaupasa LUARTZ taldearekin.

01,00: BOLO TXAPELKETA

Sariak: 1- Sthil motoserra

(Berrizko Nekazari etxeak emandakoa)

2- 12.000 pta.

3- 10.000 pta.

4- 5.000 pta.

5- 3.000 pta.

6- Ustekabea

29 OSTIRALA

SAN MIGEL EGYNA

11,30: MEZA Nagusia Ziarda eta Meabe bertsolariekin.

Segidan bertsolariak eta ZABALETA eta IKER trikitilariak.

22,30: DANTZA JAIALDIA HARITZ dantzari taldearekin.

Segidan EGAN taldea.

1 IGANDEA

11,30: MEZA Nagusia.

Ondoren, XII. PILOTA TXAPELKETAren azken partidua

17,00: BERTSO JAIALDIA LIZASO, EGANA, SARASUA, PENAGARIKANO, ITURRIAGA eta IRATXE IBARRAREKIN.

Egun guztian zehar IPARRAGIRRE TRIKITILARIAK arituko dira.

OHARRA: Aparkalekua egongo da. Antolatzaileek ez dute gerta daitezkeen ezbeharren ardura bere gain hartuko.



elgoi**BARREN**

Nafarroa enparantza 2

☎ 74 41 12

ARGITARATZAILEA:

Elgoibarko Izarra.

LAGUNTZAILEA:

Elgoibarko Udala.

ZUZENDARIA:

Ainhoa Lodoso.

ERREDAKZIO AHOLKULARITZA:

Andres Alberdi, Izaskun Elizburu.

KAZETARIAK:

Ainhoa Lodoso,

Jasone Osoro.

MAKETATZAILEA:

Maitte Rementería.

PUBLIZITATEA:

Nekane Etxaniz.

ADMINISTRAZIOA:

Amaia Martin,

M. Angeles Ortuoste.

KOLABORATZAILEAK:

Andres Alberdi, Esteban

Antxustegi, Pello Arrieta,

Felix Arrizabalaga, Belen

Arrizabalaga, Mikel Artola,

Mikel Cornejo, Izaskun

Elizburu, Jon Etxabe, Jon

Eugi, Koldo Galdona, Jose

Mari Galdos, Ina

Garagarza, Joseba

Gorosabel, Lorea

Gorostiaga, Xabier Gorriti,

Ana Igartua, Maite Iriondo,

KOKOE, Joseba Konde,

Edurne Korta, Imanol

Larrañaga, Antonio Matias,

Susana Mujika, Maite

Solozabal, Karmelo

Urdangarin, Aitor Zabaleta,

Julen Zabaleta.

BANAKETA ARDURADUNA:

Imanol Larrañaga

INPRIMATEGIA:

Gertu koop. E.

(Zubillaga Oñati)

TIRADA: 3.500 ale

LEGE GORDAILUA: SS-1.038/92

ISSN: 1133-021X

elgoi**BARREN**ek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



Erantzun zailak

Gizakiari bere-berezko eta beste animaliangandik erabat bereizten duen dohaintzat aitortzen zaio galderak egitearena. Eta ez da, ez, txantxetako dohaina! Baina, egia aitortu behar bada, askotan, egonezinetik eta buruhaustetik gehiago du dohaintetik baino, zamatik oparitik baino.

Esate baterako, *Jainkoa ona bada, zergatik onartzen ditu mina, sufrimendua, gerrak etab.? On den batek nolatan onar dezake horrelakorik?* bezalako galderak betidanik astindu dute nire kaskoa. Eta hain buruargi naizen honek ezin izaten diet erantzunik eman.

Antzeko buru-burruga sarritan somatu izan dut neure seme-alabengan ere. Adibidez, behin, duela zenbait urte, honako galdera egin zidan euretako batek: *Aita, Jainkoa non bizi zen unibertsoa eta mundua egin baino lehen?* Aidean geratu zen galdera, arraposturik gabeko oihartzun soil.

Nik, zakur zaharrek bezala, hainbatetan, badakit isilik egoten eta baita galdera zailei filtroa jartzen ere; baina oraindik ume diren nire haurrek horrelako martingala intelektualik ez dute erabiltzen. Eta hauen galderak ez dira agortu. Eta hala komeni da. Baina urteak aurrera, nire ezinaren frustrazioa handituz doa, gero eta gehiago baitira erantzun ezinda utzi behar izaten ditudan demandak, eta gauzak minik egin gabe azaltzeko nekeak gero eta handiagoak

ditut.

Azken hilabete hauetan gurean aurpegira egin dizkiguten hainbat galdera dira honakook. Ez dakit asmatuko genuen erantzunetan.

- Ama, aita, ETAk zergatik jartzen ditu bonbak edozeini min egiteko moduan?

- Zergatik bahitzen dute jendea? Zergatik Aldaia eta ez beste bat?

- Manifestari batzuk zergatik manifestatzen dira besteen tokian eta ordu berean burruka arriskua sortuz?

- Euskalduna izanik zergatik Elgoibarren ezin dut nik Jaunartzea euskaraz bakarrik egin? Nora joan behar dut horretarako, Madrilera?

- Zergatik bidali dituzte Ikastolatik Jose Luis eta Enrike? Eurak al ziren maisurik txarrenak?

- Zergatik Ikastolan ere BBB, institutuan ere berdin-berdin ematen duzuenean? Zer alde dago, ba?

- Zergatik eskatzen diote Bilboko Gotzainari euskaraz jakitea lehen Arartekoa izateko beharrezkoa ez bazen?


- Zergatik ari ziren hiru amama haiek Mintxetan gaztelaniaz, hirurek ere euskaraz ondo jakinda?

- Zergatik?... Zergatik?...

Galderak (gehiago ere izan litezkeenak) ez dakit zailak diren, erantzunak bai.

Andres Alberdi

*Eusko Jaurlaritzako
Kultura Sailak, Foru
Aldundiak eta
Elgoibarko Udalak
diruz lagundutako
aldizkaria*





GALDERAK

Ez al dauka Udalak Mintxetan iturririk jartzeko asmorik?

Udal Kirol Zerbitzuko Teknikariak baietz erantzun digu. Proiektua prestatuta dagoela eta euren asmoa aurtengo udan ipintzea zela. Alabaina, beste askotan bezala, oraingoan ere diru arazoa izan da atzeratzeko arrazoia. Iturria aparkalekuan jarriko dutela ere esan digu.



KEXAK

Emakume batek honako kexa hau argitaratzeko eskatu digu: "Kanposantuan, gure nitxotik lore sorta bat eta aplike bat lapurtu dizkigute. Jarri berriak ziren, bi hilabete eskas baino ez dute iraun. Benetan lotsagarria da horrelako lapurretak gertatzea".

Hona hemen emakume batek helarazi digun kexa: "Elgoibartar jator eta zintzoak hemen gabiltza gure eliza edertzen eta txukuntzen, baina badaude beste batzuek hain elgoibartar ez direnak, nahiz eta hemengoak izan. Ikusi besterik ez dago elizpean egin dituzten pintadak. Hori da heziketa eta zintzotasuna izan dutena".

ESKUTITZAK

Kexa bati erantzunez

Pasa den astean, BARRENe "kexak" atalean azalduko Mintxeta eta Kiroldegia abuztuan itxita egotearen kontrako idatziari, lau puntu hauen bidez erantzun nahi nioke:

1- Mintxeta Udal Instalazioa abuztuaren bigarren hamabostaldian IREKITA egon dela, BARRENe 117. alean eta abuztuaren 16an "Diario Vasco"n azaldu zen bezala.

2- Pasa den urtean Mintxeta abuztu osoan irekita eduki genuela, Muskulazio gela eraiki berria eta Tennis pista dohainik izanik gainera, eta lau pertsonak bakarrik erabili zituztela hilabete osoan. Horregatik erabaki genuen aurten lehen hamabostaldian ixtea.

3- Elgoibarren abuztuan geratzen garenok ZORTZI kantxa eta SEI frontoi erabil ditzakegula dohainik herri honetan. Korrika egin nahi duenak ere badu non egin, San Lorentzon esate baterako.

4- Udalak jendearenganako arreta izan dezala eskatzen duen bezala, berak ere Udalari errespetu bera eduki diezaion eskatuko nioke.

Ramon Mujika
Udal Kirol Teknikaria

Jatorrizko bertsioan bizi

Zinemak 100 urte, euskarak "milaka" lemapean, Euskal Herria "jatorrizko bertsioan" bizitzeko aukera eskaintzen du AEK euskaltegiak datorren ikasturtean.

Jatorrizko bertsioa, hau da, euskara, gure inguruan bizi den errealitatea da eta errealitate horretan bizitzeak hamaika aldiz sortzen dizkio estuasunak askori, izan ere, errealitate hori hitz eginez, ulertuz, irakurritik eta idatziz bizi baileike.

Zenbatek eta zenbatek sufritu behar izaten ote ditu gure herriari ondorengo edo antzerako egoerak? Esaterako, seme-alabekin edo euskara hutsean diren ekitaldietan, euskaraz hasi eta erdarara pasatu beharra, Goenkalekoen gora-beherak edo seme-alaben eskolako bilera ulertu nahian erdizka geratzea, BARREN edo seme-alaben ipuinak, lanak... irakurtzeak nekea sortzea, seme-alabei oharrak txikiak edo BARRENe euren iritzi, kexa... azaltzeko erdaraz idatzi beharra, etab.

Sufrimendu hauek alde batera lagatzen laguntzeko prest duzue AEK euskaltegia.

AEK euskaltegia

HARRIGORRIGOIKO ERROTABERRITARRAK





Lourdes Alberdik laga digun erretratu hau 1930. urtekoa da eta Lerungo zelaian aterata dago. Bertan agertzen den mutil koskor koadrila honek “Jan-baietz” izena zuela esan digute. Futbol partidua jokatzeko prest ditugu argazkian, orduan antolatzen zen herriko koadrila arteko txapelketari zegokion futbol partidua.

Hona hemen hamaikakoa osatzen zutenen izen-abizenak:

Atzean, ezkerretik hasita: **Fermin Barrenetxea** (†), **Victor Canales** (†), **Genaro Arrate** (†), **Paco Riaño** (†), **Julio Gabilondo** (†) eta **Manuel Alberdi** “**Olasope**” (†).

Eserita: **Justino Alberdi** (†), **Sebas Ansola** “**Ilunpe**” (†), **Luciano Riaño** (†), **Pedro Gorriti** (†) eta **Juanito Arrieta**.

Kilometroak 95

• **AUTOBUSAK** • **AUTOBUSAK** • **AUTOBUSAK** • **AUTOBUSAK** •

- **Urriaren 1ean, igandea, Donostian**
- **Prezioa: 1.000 pta. (Bazkideek 700 pta.)**
- **Izena emateko: ELGOIBARKO IZARRA K.E.**

ANTOLATZAILEA:
ELGOIBARKO IZARRA
Kultur Elkarte



LAGUNTZAILEAK:
ELGOIBARKO UDALA
GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA



IZPI

Lanerako eskubidea denona baita



■ ■ Mementu honetan dauden langileetatik gehienak gorrak dira.

Orain urte asko IZPI elkarte sortu zuten zenbait katekistek Elgoibarko gutxitu fisikoentzat. Poliki-poliki, gutxituentzat lan mundua gauza nahiko zaila izanik, zerbait egitea komeni zela pentsatu zuten. Eusko Jaurlaritzak dirulaguntza eskaini zien eta 1983an IZPI tailerra sortu zen. Pedro Muguruzan kokatzen da. Orain 15 urte hiru langile baino ez zeuden, gaur egun, berriz, 24raino igo da kopurua.

Hasiera batean elgoibartarrentzat pentsatu zuten sortzea lantegia. Eusko Jaurlaritzara jo zuten elkartekideek euren asmoa azaldu eta dirulaguntza eske. Jaurlaritzan ideia ona iruditu zitzaion baina herri bakar batera mugatu beharrean, bailara mailako lantegi bat sortzea aproposagoa zela erantzun zuten. Honela bada, Deba Beheko gutxitu fisikoentzat IZPI lantegia sortu zen 1983ko uztailan. Langile gutxi batzuk kontratatu ziren garai hartan baina enpresaren martxa oso ona ez zela ikusita, oposaketak atera zituzten eta zuzendari bat hautatu, Agustin Arancibia. Gaur egun 24 langile daude gutzira IZPIIn. Horietatik hamalau elgoibartarrak dira,

Teresa Perez Izpiko langilea



- Noiztik zaude IZPIIn? - 1988ko otsailean hasi nintzen eta oso pozik nago.

- Lehen ere nonbaiten izan al zinen lanean? - Ez. Bueno, betidanik jostuna izan naiz, etxean josi egiten nuen baina lantegi batean inoiz ere ez. Lan honetan oso pozik nago, etxera dirua eramatea beti da pozgarria, batez ere, norberak bere lanari esker irabazten duenean.

- Zer minusbalia daukazu?

- Umetan polioa izan nuen eta urte asko egon nintzen ibili ere egin gabe. Hezurretako arazoa daukat, batez ere.

- Harreman ona al daukazue zuen artean? - Laneko giroa oso ona da. Ni berehala moldatzen naiz toki berrietara eta jendearekin ez dut izaten arazorik.

- Gurasoekin bizi zara? - Bai, ahizpak ezkondu egin ziren baina nik etxean jarraitzen dut. Oso gustura gainera.

- Zein da zure helburua? - Lan faltarik ez izatea eta jubilaziora iristea, asko ez dira iristen eta.

- Denbora librean, zer? - Lagun batekin ateratzen naiz baina niri etxean egotea asko gustatzen zait.

- Eta oportretan? - Zamorakoa naiz eta bertara joaten naiz urtero.



lau eibartarrak, bost ermuarrak eta Soraluzeko beste bat. Neskak eta mutilak daude, guztiak 18 urtetik gorakoak eta bakoitzak duen minusbaliaren arabera lan bat edo beste bat egiten du.

Kate lana

Subkontratuak dira denak, hau da, beste enpresa batzuentzat egiten dute lan zirkuitu elektrikoak eta zerrailak muntatzen, soldadurak, terminosioa eta antzekoak egiten. Kate lana da egiten dutena. IZPIk gutxitu fisikoak izateagatik dirulaguntza txiki bat jasotzen du. Kontratu mugagabea dute langile guztiak eta lanposturen bat bete beha-



■ ■ IZPIn kate lana egiten dute. Bakoitzak bere gaitasunen arabera kate lana du.

rra dutenean, Agustin Deba Beheko udaletako ongizate sailtako teknikariek harremanetan jartzen da. Horiek hainbat pertsona bidaltzen dizkio, eskatutako baldintzak betetzen dituzten pertsonak, eta Agustinek bere beharretara hobekien egokitzen dena aukeratzen du. Lana tente egin behar

bada langileak tente egiteko gai izan behar du, eskuak erabili behar direnean berdin eta abar. Mementu honetan dauden langileen artean gehienak gorra dira. Goizez egiten dute lan, goizeko 7etatik arratsaldeko 3etara. Lan ordutegia langileek aukeratu zuten, asko kanpotik etortzen baitira eta Elgoi-

barren bazkaltzen geratzeko kostu dexente suposatzen baitzien. Astebukaretan jai eta abuztuaren hilabeteko oporrak izaten dituzte. IZPI Elgoibarko beste edozein lantegi bezalakoa da, bere ordutegia dauka, plantila jakin bat, zuzendaria, idazkaria... Zergatik izan behar zuen ezberdina?

Pedro Cobos Izpiko langilea

- **Noiztik IZPIn?** - 1985eko urtariletik.

- **Zein da zure lana?** - Mementu honetan tapoien inpresioa egiten ari naiz baina denetik egin dut. Ahal den neurrian lan ezberdinak egiten ditugu, lan mota guztiak probatzen ditugu.

- **Lehenago lanik egin izan al duzu inoiz?** - Ez. Orain arteko esperientzia ikusita balorazioa positiboa da. Gauza onak eta ez hain onak ditu lan egiteak baina guztietatik zerbait ikasten da. Eta, zoritxarez, gizarte kapitalista eta materialista honetan edozertarako dirua



behar denez...

- **Gurasoekin bizi zara?** - Bai, oraindik bai. Halere, nire asmoa bikote bat aurkitzea eta independizatzea da. Nik uste pertsona guztien helburua hori dela.

- **Zertan ematen duzu denbora**

librea? - Existentziaren, bizitzaren zergatia zein den asko interesatzen zait. Elkarrekin sartuta nago eta asko hitz egiten dugu honi guztiari buruz, meditatuta egiten dugu... Han ematen dut nire denbora librea. Oso aberasgarria da. Bizitza ez da lan egitera mugatu behar.

- **Non ibili zara oporretan?** - Aurtun Portugalen eta Espainiako hegoaldean izan naiz eta beste urte batzuetan Mexikora, Parisera eta abarera joan izan naiz. Bidaiatzea asko gustatzen zait.

- **Zure esku balego, zer aldatuko zenuke?** - Jendearen pentsatzeko era. Jendeak beste era batera pentsatzeko balu portaera ere asko aldatuko litzateke. Oraindik ere aurriritzi asko daude gizarte honetan.

Perretxikoak ezagutuz

Domekan Karakate Mikologi Elkartek Udalaren laguntzaz urtero antolatzen duen Deba Bailarako haurrentzako Perretxiko Lehiaketa eta Erakusketa burutuko da Plaza Handian. Aurtengoa XXI. edizioa izango da.

Euskal Herrian aspaldikoa dugu perretxikoak bildu eta jateko ohitura. Duela urte gutxi arte, bakar batzuk baino ez ziren jaten -bitxia bada ere, finenak-. Gure mendietan non nahi aurki zitezkeen gainera, pagadi eta harizti ugari zegoen eta. Honako hauek bakarrik jaten ziren: udaberriko susak, gibelurdinak, urritzak, onddo beltz eta zuriak, ziza horiak, perretxikoen erregina den kuletoa eta beste bi edo hiru gehiago.

Azken urteotan, Euskal Herri osoan gero eta gehiago antolatzen diren erakusketa eta lehiaketei esker eta gaiari buruz dauzkagun liburuei esker, perretxikoen inguruko jakintza handitu egin da, eta orain lehen baino perretxiko mota gehiago jaten dira, hala nola, galanpernak, txanpinoi edo barregorria, esne gorria, pago ziza, tripaki perretxikoa etab.

Udazkenean, perretxiko klase ezberdin ugari sortzen diren sasoiari, ohi baino kontu handiagoa izan behar dugu, jateko diren perretxikoekin batera pozointsuak ere hazten baitira. Identifikatzekoan akatsen bat izateak ondorio larriak ekar diezazkiguke. Jateko perretxikuak eta pozointsuak antzekoak direnean nahastu egiten ditugu.

Karakate Mikologi Elkartek igandeko lehiaketa dela eta herri osoan zehar banatu dituen orrietan "A Sorta" izenpean agertzen dira konfunditzeko moduko perretxiko pozointsuak eta jatekoak. Sorta honetako perretxikoak partehartzailerak behar bezala aurkezten baditu, antolatzaileek puntuazio maximoa ematen dute. Gaztetxoek pozoinke-tarik ez gertatzeko adinako jakintza izatea da antolatzaileen asmoa.

Perretxikoen ezaugarri morfologikoei begiraturaz ezberdin ditza-kegu bata bestetik. Hau da, oinean oskola duen ala ez ikusiz, eraztuna duen ala ez, kolorea eta tamaina; haragiaren usain edo zapoaren bitartez, zatitzerakoan esnea duen ala ez ikusiz etab.

Ez jan sekula ziurtasun osoz

ezagutzen ez dugun perretxikurik. Duda izpirik balego, bide bazterrean laga. "Hobe da bizitzan perretxiko bat galtzea, perretxiko bategatik bizia galtzea baino". Mikologian hasi berria denak perretxiko txarrak ezagutzen ikasi beharko luke ostikada bat eman aurretik; horrela jakingo luke zein perretxiko baztertu pozointzeko arriskurik gabe. Gainera gehiago dira jan daitezkeen txarrak baino.

Nire aldetik, gastronomia, kirola eta natura bat egiten dituen zaletasun honekin ahalik eta gehien goza dezazuen opa dizuet zaletu guztioi.



BERNABE MUJIKA

okindegia eta gozotegia

San Frantzisko, 4
Tel. 74 07 35
ELGOIBAR

**ASESORIA
COOP**

AHOLKULARITZA

- KONTABILITATEA
- AHOLKULARITZA FISKALA
- LAN AHOLKULARITZA
- ALLIANZ ERCOS ASEGURUAU
- MULTINACIONAL ASEGURADORA ASEGURUAU

San Bartolome 1. Tel:74 26 74/02 34 Fax:74 21 29 ELGOIBAR

Ibiltzen al zara perretxiko bila?



EDURNE ELORZA

61 urte, etxeoandrea

Inoiz bai. Ilusio haundixa ein zian behin Olazabal inguruan hongo haundi bi bilatziak. Jatia asko gustatzen jata baina alperra naiz mendixan ibiltzeko.



RAUL FERNANDEZ

14 urte, ikaslea

Behin bakarrik, orain dela bi urte. Mendiak ez nau gehiegi erakartzen. Etxean jaten ditugu amaren lantokiko lagun batek ematen dizkigulako.



RAFAEL TOLEDANO

45 urte, langabetua

Noizean behin bai. Ez dut asko ulertzen eta horregatik segurura joaten naiz. Robeloiak edo txanpiak hartzen ditugu eta gero tortilan edo rebueltoan jan.



AMAIA LARRANAGA

33 urte, irakaslea


Txikitan batez ere ibiltza na o gure baserri inguruan. Mendira perretxikutara bakarrik ez naiz juten, eta gainera ez naiz fiatzen. Ezagunak bakarrik jaten ditzut.



ISABEL CANO

57 urte, etxeoandrea

Mendira bai baina perretxikotara ez. Jatea gustatzen zait baina ez dut gehiegi ulertzen, laupabost klase ezagutzen ditut, gibelurdinak, onddoak, saltsaperretxikoak...



PACO MUGURUZA

75 urte, jubilatua

Sasoi batian gehixao baina oin pasaizian zeozer tokatzen bada... Banakan toki ezagun bat, baina oin perretxiku gutxi eta jubilau mordua gaude hartzeko.

BESTE PREZIOEKIN EZER IKUSTEKORIK EZ



450 saltoki baino gehiago dituen Estatuko lehen erakunde optikoak bakarrik eskain diezazkizuke betaurreko bildumarik eksklusiboena 2.850 pezetatik aurrera. Eta garantia guztiekin, jakina.



San Frantzisko, 21 - ELGOIBAR - Tel. 74 03 59

■ Zazpikiren bilera

Zazpiki Irratiak batzarra egingo du larunbatean, hilak 23, goizeko 11,30etan. Ganbaran izango da bilera, eta aztertuko diren gaien artean programazioa dago.

■ Hitzaldia eta Egin egunerako autobusak

Elgoibarko HBk igandean, hilak 24, Altsasun ospatuko den Egin egunera joateko autobusak antolatu ditu. Irteera Plaza Handitik izango da goizeko 10etan. Datorren asteartean, berriz, hilak 26, "Euskal Herriak bizi behar du" izenburupean Euskal Herriaren egoerari eta independentziari buruz hitz egingo du Arnaldo Otegi elgoibartarrak Kultur Etxeko hitzaldi gelan. Saioa arratsaldeko 8etan hasiko da.

■ Errosario kaleko jaiak

Urriaren 6an Errosario kaleko jaiak direla eta, kaletarrentzat afaria antolatu dute urtero bezala. Gaueko 9ak eta laurdenetan hasita, *Gure Bidea* izango da afaria eta joan nahi duten guztiek irailaren 30a baino lehenago eman behar diote izena Juanito Gorostizari. Afariaren zenbatekoa 1.800 pta.koa da eta besteak beste, Plaentxi Bikoteak, Dakintak eta trikitilariak hartuko dute parte.

■ Turismoa bultzatzeko proiektuak Deba Behean

Deba Beheak industrian izan duen beherakada kontuan hartuz, Elgoibar, Deba, Mutriku eta Mendaroko udalak martxan daude turismoa bultzatzeko duen proiektu bat bultzatzeko. Hor daude, besteak beste, Ekain, Sasiolako museo arkeologikoa, Agirre Jauregia Deban eta Itsas Museoa Mutrikun. Era berean, Mendaroko historiaurreko parkea eta Elgoibarren parke zoologikoa eta museo paleontologikoa eraikitzekotan omen dira.



Igandea, perretxikoen eguna

Karakate Mikologi Elkartearen eskutik eta Udalaren laguntzaz, aurten ere, perretxiko zaleen topagune bihurtuko da Plaza Handia. Igandean, hilak 24, Deba bailarako Perretxiko Erakusketaren XXI. Txapelketa izango da 15 urtetik beherako haurrei zuzenduta. Bakar-ka zein taldeka, gehienez bost laguneko taldeetan parte hartu ahal izango dute. Izenak Karakate elkartean eman beharko dira, berandue-nez hilaren 23ko arratsaldeko 8etan. Kartoizko kutxetan edota

bandejetan, txapelketa eguneko goizeko 10ak aurretik aurkeztu beharko dira perretxikoak Plaza Handian. Bereizteko zailak diren perretxikoak genero eta espeziearen arabera sailkatu behar dira. Epaimahaia Aranzadi elkarteok osatuko dute. Eguerdiko ordubatean emango dute ezagutzera erabakia eta segidan sari banaketa egingo da. Gutxienezko puntuazioa lortzen duten hamar urtetik gorako herritarrentzat irteera antolatuko dute Karakate elkarteok.

184 ikaslek hasiko dute ikasturte berria IMHn

Elgoibarko Erreminta Makinaren Institutuan hil honen 25ean eta 29an hasiko da 95/96 ikasturtea. 64 ikasle dira gradu osteko honako ikastaro hauetan izena eman dutenak: Industriegaien teknika komertzialak, Automatizazio industrialeko teknikak eta Fabrikazio flexiblen sistemak, Erreminta Makinaren sektoreko enpresetan sistemak integrazteko teknikak eta Kalitate Kontrol eta Gestio sistemen teknikak. Moduluen eta aurremoduluen hasiera eguna hilaren 29a izango da eta 184 ikasle dira hiru ikastaro

hauen artean bat burutuko dutenak: Delineazio industrialak, Mantenua eta fabrikazio mekanikoa eta Muntaiak.

Honez gain, 19 ikastaro ezberdin burutzeko aukera izango da aurten, IMHk urtero eskaintzen duen etengabeko heziketa eta erreziklaia programaren barruan. Diseinua, Produkzioa, Automatika, Metrologia eta Kalitateari buruzko ikastaroak hil honen 25etik abenduaren 11ra bitartean emango dira eta izena eman nahi duenak aukera dauka oraindik.



15 txinar ikaslek formazio ikastaroa burutuko dute IMHn

Txinatik etorritako hamabost teknikok erreminta makinaren teknologia berrien ikastaroa egingo du IMHn hiru hilabetetan zehar. Txinar ikasleak IMHra datozen bigarren aldia da; aurtengo udaberrian beste talde bat egon zen ikastaro berbera burutzen. Txinan erabiltzen ez diren makinak eta teknologia berriei buruzko xehetasunak ikasiko dituzte ICEX, AFM, Txinako Kanpo Merkataritza eta Jaurlaritzaren arteko programari esker. Astelehenean izan zen Udal Areto Nagusian harrera ekitaldia. Bertan zeuden Gillermo Garate alkatea, Alberto Ortueta AFMko zuzendaria, José Rejo IMHko zuzendaria eta beste zenbait udal ordezkari. Garatek Elgoibarko egoera sozio-ekonomikoaren eta produkzio sistemaren nondik-norakoen berri eman

zuen. Datuak ere eskaini zituen: Elgoibarrek erreminta makinaren sektoreko 67 enpresa ditu, 2.516 langilerekin. Enpresen arteko "aliantzak", teknologia berrietara moldatzeko ahalegina eta azkenik, sektoreak dituen zailtasunak aipatu zituen, hala nola, erreminta makinari buruzko goi mailako ikasketarik ez egotea. Alberto Ortueta AFMko zuzendariak Estatuaren produkzioaren %20a Elgoibarren egindakoa dela azaldu zien ikasle txinarrei eta gure herrian 2.000 makina modelo ezberdin fabrikatzen direla adierazi zien, hauetatik 800 modelok erabiltzen dutelarik kontrol numerikoa. MOFTECeko Lan Shuguang andereñoak txinar gobernua izenean eskerrak eta zorionak eman ondoren, opariak elkartrukatu zituzten.

■ Kilometroetarako autobusak

Elgoibarko Izarra Kultur Elkartek Donostian urriaren 1ean izango den Kilometroak 95 jaira joateko autobusak antolatu ditu. Prezioa 700 pta.koa da bazkide direnentzat eta 1.000 pta. ordaindu beharko dute bazkide ez direnek. Izena emateko lehenbailehen Elgoibarko Izarraren egoitzara zuzendu edo 74 16 26 zenbakira deitu.

■ Gazte Asanbladaren zozketa larunbatean

Gazte Asanbladaren zozketa larunbatean, hilak 23, gaueko 22,00etan izango da Lanbroa atzealdeko "Toki" izeneko lekuan. Ondoren, leku berean Gaztetxea bota zuteneko diapositiba saioa eskainiko da.

■ Bandaren kontzertua

Udal Musika Bandak bost pieza joko ditu larunbatean, hilak 23, gaueko 22,30etan Plazako arkupeetan izango den kontzertuan. Jose Antonio Osorok zuzenduta "Gloria al trabajo", "Fiesta de trompetas". "Estampas vascas", "Italia" eta "En las místicas tierras de Egipto" obrak joko dituzte. Igandean, berriz, hilak 24, Azkoitian izango da Musika Banda, Cándido Beristain musikariari egingo zaion omenaldian parte hartuko baitu beste bost bandarekin batera. Goizeko 9etan abiatuko dira Azkoitirantz, kalejira, alardea eta kontzertua eskainiko dutelarik.

Jose Ignacio Ullacia Echeverria

AROSZTEGIA- OBRAK- IGELTSARITZA

Santa Klara, 10-1
Tel: 74 05 47

Etxea: Santa Ana, 30
Tel: 74 04 68



ZERAMIKAK

Erakusketa eta bulegoa:
Antonio Arrillaga, 6-8
behea
83 Postakutxa
Tel. 74 33 44 - 74 06 92
Fax 74 37 11

Biltegia:
Arregitorre, 10 - 14 behea
Tel. 74 20 38 - 74 23 71
20870 - ELGOIBAR
Gipuzkoa

Itziar Fernandez:

“Huairoun munduko emakume guztien espresioak entzun ziren”

Itziar Fernandez elgoibartar gehienek ezagutuko dute, ziur. Santa Klarako eskolan ikasi eta gero, batxilergoa egin eta Bilbora joan zen bizitzera. Gizarte Laguntzaile ikasketak egin ondoren zuzenbidean lizentziatu zen. Puerikultura ikasketak burutu eta irakaskuntzan aritu zen,

eskolaurrean. Bizitzak ematen dituen bueltak tarteko, 1989an Emakundeko idazkari izatea eskaini zioten eta horretan dihardu. Orain hamabost egun inguru bukatu berri da Pekinen emakumeen gaiaren inguruan egin den Nazioarteko Konferentzia. Itziar han

- Gauza asko egin dituzu zure bizitzan, Itziar.

- Bai, baina garrantzitsuena bi seme-alaba edukitzea izan da.

- Sei urte Emakunden.

- Bai, eta aurrerapauso garrantzitsuak eman dira, batez ere jendearen jarrerari eta komunikabidei dagokionean.

- Zer gertatu da Pekinen?

- Nazio Batuetako 187 estatu izan ziren Pekinen. Hamar urtean behin egiten da gisa honetako konferentzia. Aurten Pekinen egitea erabaki zen giza eskubideen alde tik herrialde nahiko zapaldua delako. Horrelako konferentzia bat egiten den guztietan beste konferentzia alternatibo bat antolatzen dute ONGek. Aurten Huairoun izan da foro alternatiboa eta han izan naiz ni.

- Zergatik ofiziala eta alternatiboa?

- Ofizialean dokumento bat landu da, hainbat puntu, helburuak eta helburu horiek lortzeko pausoak eztabaidatu dira. Gai konfliktiboak egon dira, besteak beste, sexualitateari buruzkoak, lesbianismoari buruzkoak... Alternatiboan, berriz, 30.000 pertsona inguru



“Umetan desiratu izan nuen gizonetzkoa izatea, pribilegio gehiago zituztelako”

egon gara, gehienak emakumeak. Era eta herrialde guztietako emakumeak elkartu gara: etxekoandreak, gazteak, monjak... eta arazo amankomunak eztabaidatu ditugu.

- Arazo berdinak al ditugu emakume guztiok?

- Funtsean bai. Hala ere, kulturaren arabera, egoera ekonomikoaren arabera, erlijioaren arabera graduazio ezberdinak daude, helburuak ezberdinak dira eta eman beharretako pausoak ere diferenteak. Anekdotak bezala, emakume batzuek txador-a, beloa, zeramaten eta haiek

gustura zeuden horrela, beraiantzat askatasun sinboloa zen, sentsuala, gizonetzkoen adulterioa onartuta zeukaten eta abar...

- Zeintzuk dira, beraz, borroka amankomunak?

- Batez ere botereari dagozkionak. Emakumeak berak eskubide osoa du bere aukerak egiteko. Herrialde arabiarretan emakumeek politikan parte hartu nahi dute, ikasi nahi dute... Gauzak errealitate baten barruan ikusi eta ulertu behar dira.

- Kontzientziarik ba al dago?

- Izugarria. Inpresioa

egiten zuen arraza eta kolore guztietako emakumeak elkarrekin ikusteak manifestaldi batean. Bakoitzak bere esloganak zituen baina plaza handi batean bildu ziren une batez munduko emakume guztien espresioak, arazoak, helburuak...

- Zertarako egiten dira konferentziak?

- Berez, Nazio Batuek antolatzen duten konferentzian onartzen den dokumentoa gero herrialde bakoitzak bere erara aplikatzeko konpromezua hartzen du. Baina garrantzitsua da gai berberaren inguruan eztabaidatzeko elkartzea ahalik eta naziorik gehien. Onartu den dokumentoa atal ezberdinez osatua dago eta atal horiek jorratzen hasi behar dugu, politikopoliki baina geratu gabe.

- Sekula desiratu izan al duzu gizonetzkoa izatea?

- Umetan, emakumeok baino askoz pribilejio gehiago zituztela ikusten nuelako. Baina 17 urtetik aurrera, emakume izatearen kontzientzia hartu nuenetik sekula ez dut beste ezer izatea desiratu. Borroka honetan sartuta egoteak eta emakume bezala bizi izateak aberastasun handia eman dit.

Zc j c t t c m BERRI

3. ADINARI ZUZENDUTAKO 15. GEHIGARRIA



Urtero bezala, aurten ere gripearen aurkako txertoaren kanpainari eman zaio hasiera. Aipatutako txertoak datozen hilabetei begira gripearen aurka babesten du eta batez ere 65 urtetik gorakoei komeni zaie. Datorren ostegunean, hilak 28, Jubilatuen Biltokian erizaina izango da txertoa jartzeko goizeko 10etatik aurrera.

MOTZAK

Errioxako Fuenmayor Eherrira txangoa

Udazkenari aurpegi onez ongietorri emateko asmoz edo, Jubilatuen Biltokiak irteera bat antolatu du hil honen 29rako. Autobusa Elgoibartik aterako da, Plaza Handitik eta joan nahi duten guztiek egun paregabea gozatu ahal izango dute Errioxa aldean. Fuenmayor izeneko herrian izango da bazkaria eta arratsalde Logroño bisitatuko dute. Ez da, ez, planik txarrena udazkeneko haizeei aurre eginez, autobusa hartu eta egun oso batez Errioxako parajeetan galtzea.

Makailo lehiaketa Elgoibarko Biltokian

Urriaren 6an Makailo Lehiaketa izango da Elgoibarko Jubilatuen Biltokian. Lau lehiakidek hartuko dute parte, Ipuruako Egoitzako ordezkariak, Urkiko egoitzako ordezkariak, Mutrikukoak eta, azkenik, elgoibartarrak. Lehiaketa arratsaldeko 5etan hasiko da. Ordu horretatik aurrera sudurra eta bista gozatu dituzte urreratzen direnek eta

sabelean kili-kilirik eragingo die prestatzen diren makailo plater bereziek.

Iraila, urria eta azarora- ko oporraldiak Caceresen

Azken urteotan Guardamarren eta Torreveijan hainbat aste pasatzeko zegoen programa suspenditu egin da aurten. Horren ordez, iraila, urria eta azaroa Caceresen pasatzeko programa antolatu da. Hileroko diru sarrera 37.000 pta.tik gora dutenek Eroski Bidaiak agentziara jo beharko dute informazio gehiagoren eske. 24.850 pta. baino gutxiago jasotzen dutenek, aldiz, Eibarko Zaharren Egoitzara joan eta bertan 10.000 pta.ko bono bat eskuratu ahal izango dute.

Bi elgoibartarren arte Blanek sarituak

Joan den asteazkenean Urola eta Deba bailaretako Jubilatuen Elkarteek antolatutako erakusketaren sari banaketa izan zen. Bertan, Jose Elizondok tailan eta

Apolinar Aldalurrek pinturan sari bana jaso zuten eurek aurkeztutako lanek erakutsi duten kalitateagatik. Zorionak bie!

Egonaldiak Bainuetxeetan

Azken boladan modan daude bainuetxeak. Horietan astetxo bat pasatzeak hainbat onura dakartza osasunerako eta ahal den neurrian aprobetxatu egin behar da. Urte honetarako antolatu diren egonaldietatik asko eta asko gainezka daude. Izan ere, Fiteroko eta Arnedilloko bainuetxeak lepo daude eta Zestoan baino ez da plazaren bat geratzen. Joan nahi duenak urriaren 1a eta 15a bitartean edo azaroaren 16-30 bitartean du aukera. 15 egunetako egonaldietatik ordaindu beharrekoa diru sarreraren arabera da. 60.000 pta.tik behera jasotzen dutenek hileroko, 47.000 pta. ordaindu beharko dute; 60.000 eta 80.000 pta. artean jasotzen dutenek 57.000 pta. eta 80.000 pta. baino gehiago jasotzen dutenek 72.000 pta.

PEDRO GOROSTIDI

"Barandiaranek animatuta sortu naban Arrate irratia"

80 urte bete zituen ekainaren 15ean. Kalamua behean kokatzen den Urkiola baserrian jaio zen. Handik, baserritik, Arrate ikusten omen zuen txiki-txikitatik eta haurtzaroko bista hark eraginda edo, bederatzi urte zituela aitarengana joan eta, "nik abade izan nahi dot" aitortu zion. Arrateko parrokoa izan da orain gutxi jubilatu den arte. Halere, elizaren ondoko etxean bizi da eta meza ematen jarraitzen du. Makina bat gauza egin ditu Don Pedrok: Arrate irratia sortu, auzoko haurrei eta nagusiei eskola eman, elizako konponketak bideratu... Guzti horiek bere oroimenean ezezik Arrateko historian ere geratuko dira, betirako.

- Bederatzi urte baino ez eta apaiza izan nahi zenuen.

- Bai. Aitxari esan nionian, poza-zen pozez negar itxen zaban. Berak gaztetan abade izan nahi zaban baina ezin. Seme bat abade izatia poz haundixa zan berantzat.

- Abadetzarako ikasi eta Arratera, ez?

- Bai. Ez zauan abaderikan eta zelan ni ezaguna nitzan ba neri esan zien etortzeko. Obispo izendatzia baino ilusio haundixaua ein zian Arratera etortziak. Hasieran eskolak ematen niuen auzoko umiei eta nagusixeri ere bai. Monjak irakurtzen eta ikasten erakusten ziuere eta nik beste gauza batzuk.

- Urte asko dira Arrate Irratia sortu zenuenetik. Nolatan?

- Jose Migel Barandiaran zana oso laguna nakan eta harek beti esaten zian zeozer estudixau bihar

nabala, radiotekniko edo. Ni ezin nitzan Madridera-edo jun eta Barandiaranek esan zian "por correspondencia" eitzeke. Eta ein naban. Gero gerria etorri zan. Nik ez naban fusilikan hartu baina frentietako emisorak konpontzen ibili nitzan.

- Eta gero zu zeu lokutore.

- Bai, nik nahi naban errosarixua eta mezia zabaltzeko, fedia zabaltzeko emisora bat zabaltzia. Eta holaxe sortu naban Arrate Irratia. Hasieran mezak bakarrik ematen nitxun baina gero pentsatu naban beste gauza batzuk ere sartzia...

- Eta?

- Musika klasikua ipintzen naban baina gero boleruak, trikitixak eta holakuak ere ondo egongo ziazela pentsatu naban. Baina neu abade izanda etzan ondo egongo amoriuei buruzko abestixak ipintzen ibiltzia eta orduan etorri jatan Bernardo, berak gustora eingo zabalaba eta. Oso ondo eitxen dau berak lan hori.

- Eliza zuri esker berritu zuten.

- Lan haundixa zauan eitzeke.



Aldaria oso behian zauan eta silak ere erdi apurtuta. Konpontzia derri gorrezkua zan eta poliki-poliki lortu genduan danon artian. Eliza ederra geratu zan.

- Kontaiguzu Arrateko amabirjinaren istorioa.

- 1442. urtian, agostuan 14an ardi- xekin zabilen Mendaroko neskati- la bati Amabirjina urten jakon. Elizan dakagun irudixa, Arrateko Amabirjina eta Jesus umia. Aurreko egunian ez zaon ezer toki horretan eta hurrenguan pasatu zanian irudixa topatu zaban. Ikaragarria izan zan neskatalian eta bere familixian emozia.

- Irailaren 8an Arrate eguna.

- Bai, baina oin dala urte asko ez zan egun horretan ospatzen. Lehen abenduan 8xan zan. Baina febxia ez zan ona egualdixa txarra eta jende gitxio etor-tzen zalako. Erroman eskatu zan eguna aldat- zia eta baietz esan zebeu, irailan 8xan ipintzeko baina abenduan 8xan beti eskaintzeko mezia. Eta holaxe eitxen da.

- Noiz arte Arraten Don Pedro?

- Hil arte eta ahal doten bitxar- tian, nahiz eta jubilauta egon, me- zia ematen.



“
N eskatila bati
1442an agertu jakon
Arrateko Amabirjina
”

Eta zuk, zenbat urte nahi zenituzke?

**Eloi
Monreal**
64 urte



Posible balitz 35 urte izan nahi nituzke. Adin horretan nahikoa esperientzia duzu bizitzari buruz eta gaztetasuna ere geratzen da. Nik oroitzapen onak dauzkat garai hari buruz, lana nuen, ezkontuta nengoen, seme-alabak nituen... Urte haietan, gainera, gaur egun baino askoz lasaiagoa zen bizitza.

**Serafin
Morgado**
57 urte

Bizitzako adin guztiak



onak izan dira, oraingo hau ere ona da baina dudarik gabe 18 urte izatea benetan berezia da. 18-20 urte bitarteko garaia oso ondo gogoratzen dut, neska-mutilak ateratzen ginen,

Gazteen burutik ez da horrelakorik pasatzen. Egia esan, gazteek atzera begiratzera-koan ez dute, ez, urte asko ikusiko. Adinean aurrera egin ahala, ordea, makina bat oroitzapen doaz gehitzen eta askotan, atzera begiratzeko ohitura ere izaten da. Mementu bereziak gogoratzen ditugu, inguruko jendeari gure 20 urteak nolakoak izan ziren kontatzen diegu... Denborak aurrera baino ez du pausorik ematen eta bere martxan goaz gu ere. Baina atzera egitea posible balitz, zenbat urte izan nahi zenituzke?

dantzara joaten ginen inguruko herri guztietara, oinez, bizikletaz... ahal zen bezala. Garai ona izan zen hura, bai.

**Felisa
Morales**
62 urte

20 urte izan nahi nituz-



ke. Urterik onenak izan ziren niretzat. Amona zaindu beharra neukan baina asteburuetan dantza egitera joaten nintzen, nobioa neukan... Oso ondo ibiltzen nintzen, pozik. Gaur egun ezkontuta nago, seme-alabak dauzkat eta pozak ere izaten dira, nola ez, baina egoera askoz okerragoa da.

Telebista piztea besterik ez dago inguruan gertatzen diren gauzak ikusteko.

**Adela
Pascual**
52 urte

16 urtekin gustura




egongo nintzateke. Gaztaroa ez nuen bat ere disfrutatu, oso gazte hasi nintzen lanean, gero ezkondu egin nintzen, seme-alabak izan nituen... Bizitza osoa lanean niretzat denborarik hartu gabe. Ahal banu, 16 urte izan nahi nituzke baina gaur egungo gizartean. Gaur egungo gazte bat izan nahi nuke.

Jose

Zubiaurre
73 urte

14 urtekin eta oin da-



kaun esperientziak oso gustora egongo nintzake. Bestela, orduan euki ez genduan posibilitadiaz eukiko naban nik oin askoz gauza gehixo eitzeko, ikasteko, esate baterako. Neri musikia ikastia gustatuko litzaidake, beti izan da nere afiziua eta.

Isabel Ansola
70 urte
40 nitxuaneko epokia



ona izan zan. Lana nakan, urte askuan ibili naiz serbitzen eta oso gustora. Ezkondu eta seme-alabak izan nitxun baina lana ere asko eitzen naban eta beti gustatu izan jata neri lan eitzia. Ahal banu 40 urte izatia, ni gustora.

Ondo lo egin!

Adinean aurrera goazen neurrian hainbat arazo sortzen dira loaldian. Lo gutxiago egiten dugu eta gauez gehiago esnatzen gara, "zaticako loaldia" deritzana sortuz. Lo egiteak atsedena dakar eta horrek oreka fisikoa eta psikikoa. Ez badugu ondo egiten lo ez gara ondo sentitzen. Lo egiterakoan ametsak izaten ditugu eta ametsetan desioak, fantasiak eta aitortu ezin diren hainbat pentsakizun gauzatzen ditugu hori guztia oso garrantzitsua izanik guztion barne bizitzan, inkonziantean.

Hona hemen hainbat aholku lo orduak ahalik eta hobekien aprobetxatzeko eta arazoak ekiditeko:

- 1.- Oheratu baino pare bat ordu lehenago, egunean zehar izan ditugun ardurak ahaztu behar ditugu. Zerbait irakurri edo musika entzun baina gehiegizko ariketa intelektual edo fisikorik egin gaube.
- 2.- Beti ordu berean oheratzea eta esnatzea komeni da. Ohiturak lo egiten laguntzen du.
- 3.- Goizean goiz ariketa fisikoren bat egitea ona da.
- 4.- Erlaxatzeko teknikek asko lagun dezakete.
- 5.- Ez hartu estimulanterik (kakaoa, tea, kafea...). Alkoholak hasiera batean lo egiten laguntzen badu ere, eragina pasa eta gero, gau erdian esnatzeko arriskua dago.
- 6.- Egunez ez lorik egin. Siesta egitekotan, ez dadila 20 minutu baino gehiago luzatu.
- 7.- Afari arina egin eta ahal bada lotara joan baino pare bat ordu lehenago.

8.- Oheratu aurretik dutxa bero bat, esne beroa edo infusioen bat hartzea komeni da.

9.- Lo hartzea kostatuz gero, ez arduratu, ez obsesionatu. Lasai hartu eta loa berez etorriko da.

10.- Gauez nahiz eta lorik ez egin, ez jaiki. Ohean geratu eta deskantsatu.

11.- Goizean ez geratu ohean nahiz eta gauean lorik ez egin.

12.- Arropa eroso jantzi oheratzeko eta pultserak, erlojuak eta bestelako trabak kendu.

13.- Prostatako hainbat arazok sortuta, gizonezkoek gauez komunera joateko behin baino gehiagotan jaiki behar izaten dute. Honen aurrean badaude zenbait sendagarri. Bizkarreko mina, liseriketa arazoak edo antzekoak izanez gero, medikuarekin hitzegitea komeni da. Kontuan izan behar da medikamentu batzuek insomnioa sortzen dutela.

14.- Logela ilun, zaratarik gabe eta temperatura onean egotea komeni da.

15.- Ahalik eta gutxien ikusi telebista.

16.- Aholku hauek jarraituta ere ezin baduzu lorik egin ez medikamenturik hartu. Medikuaengana joan eta azaldu berari zein den zure arazoa.



PEPITA PEREZ-CORTES

Lubina txanpain erara

OSAGAIAK (8 pertsonantzako):

2 kilo t'erdiko lubina bat, bi botila txanpain, kipula, belar finak, gatza, azenarioa, patata, olio eta nata.

PRESTAKUNTZA:

Lubina oso-osorik garbitu eta zapi zuri batean bildu behar da. Zapia garbia badago ere, ur azpitik pasatzea komeni da jaboï usaina kentzeko. Lubinari gatza bota ondoren zapien bildu eta ertzak, buztan alde eta buru alde, soka batez lotu behar dira. Bitartean, kazuela batean txanpaina irakiten jartzen da gatz piskatekin, lau zatitan moztutako tipula batekin, zatitutako azenario batekin, belar finekin eta olio piskatekin. 20 minutuz irakiten utzi eta gero lubina sartzen da barrura, zapien bertan bilduta. 15 minutuz mantendu behar da, sua suabe suabe. Gero, buelta ematen zaio lubinari eta beste 5 minutuz laga behar da sutan. Denbora hori igaro eta gero, lubina ateratzen da eta kazuelan dagoen likidoa pasadoretik pasatzen da. Txanpaina indarra galtzen utzi behar da karamelo kolorea hartu arte, jelatina itsurakoa. Nata montatu eta gero txanpain likidoari gehitzen zaio. Bide batez, pare bat patata zuritu eta zati txikietan moztzen da datil itxura emanegosi. Bi tomate olio eta perexil piska batez estaliz laban sartzen dira. Guztia egin eta gero, lubina zapitik atera eta bandeja baten gainean jarri behar da. Begi eta lepoaren inguruan limoi zatiak jartzen dira eta inguruan patata zatiak, azenarioa eta perexila. Gaietik txanpainarekin eta natarekin egindako saltsa botatzen da.

Josefina Irusta

Petunia dendakoa

**● Zergatik Petunia?**

▶ Loreak asko gustatzen zaizkidalako, batez ere Petunia.

● Adina galdetzen badizut?

▶ Berehala erantzungo dizut, 58 urte.

● Markari begiratzeko al diozu?

▶ Gero eta gutxiago.

● Zein egoeratan sentitzen zara praka estuetan bezain deseroso?

▶ Gaur egun bizitza bera da nahiko deseroso.

● Zein kolore aukeratu zenuke ezkontza batera joateko?

▶ Beltza oso elegantea iruditzen zait.

● Zer desagertaraziko zenuke zapi zuri batez?

▶ Denda kenduko nuke eta bere ordeaz dirua jarriko nuke.

● Zein erroparekin ikusiko zenuke zure burua lotsagarri?

▶ Bakeroak ez zaizkit gustatzen niretzat.

● Zein garaitako erropa duzu gustuko? ▶ 60-70ko hamarkadakoa.

Garai hartan, pisu gutxiago neukan eta dena geratzen zitzaidan hobeto.

● Bainujantzia ala bikini? ▶ Bainujantzia.**● Entzutea ala hitzegitea nahiago? ▶ Biak gustatzen zaizkit.****● Maitatzea ala maitatua izatea? ▶ Bietatik behar da dosi bana.****● Modeloren baten izena?**

▶ Orain hain modan dagoen Claudia Schiffer.

● Eta gizonezkoren batena?

▶ Bat ere ez. Neskak askosaz esplotatuagoak daude.

● Etixerako bata ala erropa? ▶ Bata eta amantala eta ahal bada konjuntua izatea. Etxe barruan ere zaindu behar da itxura.**● Amets bat? ▶ Ez daukat ametsik egiteko denborarik. Goizeko 4etan esnatzen naiz irratian Torrelledor-i entzuteko. Kazetari bikaina da, eguna alaitzen dit goizean goiz hasita.****● Zertaz mozorrotuko zinateke?**

▶ Beti mozorrotzen naiz pailazoz. Makilaiaren atzean ezkutetzea eta inork ez ezagutzea asko gustatzen zait.

● Emakume dotore bat? ▶ Sofia Loren asko gustatu izan zait beti.**● Elgoibarko zein txokorekin identifikatzen zara?**

▶ Plaza Handiarekin eta Errosario kalearekin.

● Zein erokeria egin nahi zenuke?

▶ Nik dauzkadan urteekin zorakeria guztiak egin ditut dagoeneko baina beharbada garrasi bat gustura botako nuke.

TELEBERRI FILMS

Telebistako notiziei begia jota nagola kirol sailean saltsan ditugu estropada eta futbola: San Pedrok baietz Oriok ezetz, bata besteari burla. Etxeberria afera ere izan da nahiko fabula. Ekonomian, pelagikoak ezin adostu sekula... Zinemaldira joan gabe ere bada nahiko pelikula.

Pelikularik serioenak hemen aipatzera noa: Chirac erotu egin da eta astindu du Mururoa. Orain Galindo jeneral dugu, gero eta gorago doa. Balkanetako gerrak jadanik ez dit eragozten loa. Ta euskararik gabe daukagu oraindik Nafarroa... Sarritan errealitateak gainditzen du fikzioa.



ABEL IRIZAR

ARAZOAK ZURE AHOTSAREKIN?


Hitzegiteko: landu zure ahotsa!

Polipoek, noduloek, ahotsaren erabilera okerrak, etab...

ERAGINDAKO RONKERAK

ANGELA ZABALETA AIZPITARTE

DEITU ☎ 74 15 56



XABIER

ILEAPAINDEGIA

*Eskatu
eguna eta ordua*

San Bartolome 13, Tel. 74 19 97

Ur eta zabor ordainagiriak

Bihar, hilak 23, 1995eko hirugarren hiruhilabetekoari dagokion ur, zabor eta estolderiagatiko erreziiboak ordaintzeko azken eguna izango da. Epez kanpo geratzen direnei %20 gehiago kobratuko zaie. Ordainketa errazteko, ordainagiriak helbideratzea gomendatzen da.



Zergen kobrantza eta ordainketa

Aurten lehen aldiz, orain arte Foru Aldundiaren ardurapekoa zen hiri eta nekazal ondasunen eta ekonomi iharduereen zergen kobrantza egingo du Udalak. Iaz arte, Aldundiak jasotako zergen zenbatekoa Udal ezberdinen artean banatzen zen, Udalek lan horregatik inolako kosturik izan gabe. Baina pasa den urtetik, Udal bakoitzari zegokion %5ekoarekin geratzen zen Aldundia, Elgoibarko Udalaren kasuan 7.500.000 pta. inguru, zergen kobrantza egiteagatik. Aurten ordea, zergen kobrantza Udalaren esku geratuko da eta %5a aurreztuko du. Zerga hauek borondatez ordaintzeko azken eguna azaroaren 10a izango da. Erreziboa helbideratu gabe dutenei helbide fiskalera bidaliko zaie ordainagiria. Ordainketa Kutxan, Euskadiko Kutxan, Banco Bilbao Vizcayan eta Banco Guipuzcoanon egin ahal izango dute. Urriaren 25erako erreziboa jaso ez duenak, Udaletxeko bulegoetan eskuratu ahal izango du. Epearen barruan ordaintzen ez duten erreziboei %20 gehiago kobratuko zaie, bai eta atzerapenaren interesak eta kostuak ere.

Epaimahaia osatzeko zozketa egin da

Gaur, hilak 22 ostirala, izan da epaimahaiak osatzeko zozketa. Sistema informatikoz egin da zozketa eta hortik atera dira datozen bi urteetarako epaiketa ezberdinetako epaimahaiak. 1978.eko Konstituzioko 125. artikulua ar-

bera, "legeak zehazten duen kasuetan, hiritarrek Justizia Administrazion parte hartzeko eskubidea dute Epaimahaiaren bidez". Zozketan aukeratuak izan diren pertsonak parte hartuko dute aurrez zehaztuko zaizen epaiketaren batean. Beti ere, epaiketak ez dira oso konplikatuak izango eta kon-tuan hartuko da epaimahaikideek ez dutela lege aldetik ezagupen zehatzik. Epaimahai Tribunal bakoitza bederatziz epaimahaikidez eta Magistratu batez osatuko da eta horiez gain ordezkari bi epaimahaikide egongo dira. Taulan, besteak beste, epaimahaiaren funtzioak, epaimahaikide izateko baldintzak, debekuak eta aitzakiak.



ETA KITTO!

■ ■ Eibarko epaitegia.

EPAIMAHAIAREN FUNTZIOAK ETA OSAKETA

■ Epaimahaiaren funtzioak

- 1- Magistratuak aurrez zehaztu duen kasua probatutzat edo ez probatutzat emango du.
- 2- Ekintza bakoitzean parte hartu duten akusatatu errudun edo errugabe izendatuko ditu.
- 3- Epaimahaiak independentziaren, erresposabilitatearen eta legearekiko sumisioaren printzipioak errespetatu behar ditu.

■ Epaimahaikide izateko baldintzak

- 1- Irakurtzen eta idazten jakitea.
- 2- Delitua gertatu den probintzian bizitzea.
- 3- Ezintasun fisikorik edo psikikorik ez izatea.

■ Epaimahaikide izateko debekuak

- 1- Epaiketako akusatzailea izatea.
- 2- Epaiketan parte hartzen dutenen batekin harremanak izatea.
- 3- Epaiketan lekuko izatea.
- 4- Epaiketan interesa izatea, zuzena edo zeharkakoa.

■ Epaimahaikide ez izateko arrazoiak

- 1- 65 urte baino gehiago izatea.
- 2- Aurreko lau urteetan epaimahaikide izatea.
- 3- Familian erantzukizun handia izateak arazo handiak jasatea.
- 4- Lan garrantzitsuren bat izan eta aldegitiko arazoak sorraraztea.
- 5- Atzerrian bizi izatea.
- 6- Militar profesionala izatea.
- 7- Beste batzuk.

Nafarroa enparantza

■ Gaur egun Nafarroa enparantza izenaz ezagutzen badugu ere, garai batean Kalebarrengo plaza izena zeukan. Garai hartan harresi barruan kokatzen zen Elgoibar eta ibaiaren norabidea jarraituz, bi kale paralelo zituen; Ermuaran kalea (San Bartolome) eta Feria kalea (Errosario). Era berean, bi plaza nagusi zeuden: Kalegoen (gaur egun Foruen Enparantza) eta Kalebarrengo (Nafarroa enparantza).

■ Kontzejuaren eta Juan Otxoaren, Altzolako dorretxeko jaunaren arteko akordio baten bidez erabaki zen Nafarroa enparantza egitea. Dorretxea harresien barruan gelditzearen truke, Altzolako etxea inguratzen zuten hainbat lur-sail herri-jabetza izatera pasa ziren eta herri-esparru bat sortu zen.

■ XVI. mendean hainbat eraikuntza altxatu ziren zona honen inguruan, hala nola, kontzeju etxea, alhondiga, harategia... Esparru hau hiribilduko gune nagusi bihurtu zen, baina XVII. mendetik aurrera Kalegoengo plazak, Plaza Handiak hartu zuen ordura arte

Nafarroa enparantzak izan zuen garrantzia.

■ XV. mendean eraiki zen Nafarroa enparantza eta ordutik hona zenbait aldaketa egin dira, hala nola, harresia eta honek zuen arku itxurako atea desagertu dira, enparantza zeharkatzen zuen ubidea lehortu egin da, herriko alhondiga desagertu egin da, San Frantzisko komentua eta eliza bota egin ziren eta XX. mendean merkatu plaza eraiki zen.

PELLO ARRIETA



Petra Etxaniz

"Petra zinekua"

(1886-1962)



- Elgoibarren jaio zen 1886ko urriaren 26an.
- Juan San Martin armagilearekin ezkondu zen eta lau seme-alaba izan zituen. Bat gaixotuta hil zen eta beste bat gerra garaian desagertu zen.
- Errosario kalean, gaur egun "Lizzy" dagoen tokian, zine mutua izan zuen, hortik zetorkion gaitzizena, "Petra zinekua".
- Sasoi hartan Elgoibarren zegoen zine bakarra zen. Zine operadorea bere anaia zen, Prudencio Etxaniz, eta desagertutako semea ere bai.
- Gerra garaian, lokala errekiatu eta zinea betirako itxi zuten.
- Sukaldari ona zen eta herritarren artean oso ezaguna zen botika egiten zuen: "Petraren botika", zauriak osatzeko, bizkarreko granoei birika ateratzeko, etab.
- Gaur egun oraindik ere, badago Petraren sendian botika egiten jarraitzen duen kide bat.
- 1962. ean hil zen maiatzaren 27an.



EZPEINTZA
MAKINA
BARRUTITILLA

95-96 kurtsoaren AURKEZPENA

Irailaren 29an goizeko 10etan izango da.

MOTZAK

Mintxetako futbol zelaien alogeren prezioak

Mintxetako bi futbol zelaiak, handia eta txikia, alokatzeko moduan daude Udal Kirol Zerbitzuak aditzera eman duenez. Prezioak honako hauek dira: zelai handia 5.250 pta. orduko eta zelai txikia 2.100 pta. Aste osoan zehar goizez eta arratsaldean, igande arratsaldeak izan ezik, erabili ahal izango dira zelaiak. Bietatik edozein alokatuta ere, duxak eta aldagelak erabiltzeko eskubidea dago. Erretserbak bi aste lehenago egitea gomendatu du Kirol Teknikariak 74 44 15 zenbakira deituta edota Mintxetatik bertatik pasatuz.

Tenis ikastaroa emakumeentzat

Udal Kirol Zerbitzuak emakumeei zuzendutako tenis ikastaroa antolatuko du urritik aurrerako. Hamar orduko iraupena izango dute eta klaseak astean birritan izango dira, ordubetekoak. Dendetan lan egiten dutenak aintzakotzat hartu dira ikastaroa antolatzerakoan, arratsaldeko 3etatik 4etara bitartean izango baitira klaseak. Ikastaroaren zenbatekoa 3.000 pta.koa da. Izena emateko Kirol Zerbitzuko 74 44 15 zenbakira deitu lehenbailehen, plazak mugatuak baitira. Talde bakoitzeko sei lagun gehienez apunta daitezke eta bi talde antolatzeko asmoa dutela adierazi digute Udal Kirol Zerbitzutik.

Amaia Revert:

"Beti nago igerilekura joateko desiatzen"

■ **Non ikasi zenuen igeri egiten?**
- Eibarren, 7 urterekin. Eskolatik joaten ginen igerira, hemen oraindik ez zegoelako igerilekurik.

■ **Berehala gustatu zitzaizun?**
- Bai. Txikitan hondartzara joaten nintzenean, beti uretatik atera ezinik egoten ziren gurasoak.

■ **Noiz hasi zinen serioago?**
- Duela bi urte, hemen, Kiroldegian. Maila ikusteko frogak egin zizkidan entrenatzaileak. Orain ordubeteko entrenamenduak egiten ditugu.

■ **Zer entrenamendu mota?**
- Ordubeteko saioak. 400 mko, 200mko serieak, entrenatzaileak jartzen dizkigun ariketak... Nire kontura ere ibiltzen naiz.

■ **Zein estilotan da teknika funtsezkoena?** - "Mariposa"n. Oso zaila da, esfortzu handia eskatzen du. "Croll" eta "braza" ditut gogokoen, bizkarrez igeri egitea, berriz, bat ere ez. Estilo aldetik "croll" a doakit hobetoen, eta 50m edo 100 metroan ibiltzen naiz arinen.

■ **Zertan hobetu behar duzula ikusten duzu?**

- Bizkarreko estiloan batez ere, erresistentzia gutxi daukat, agian teknika falta zaidalako. Dena den, gutxien lantzen dugun estiloa da.

■ **Txapelketetan aritzen zara?** - Bai,



urtebete bakarrik daramat eta nahiko ondo ibili naiz. Datorren denboraldian hobeto ibiltzea espero dut baina maila oso altua da.

■ **Ez al duzu alferkeriarik izaten?** - Sekula ere ez. Eguraldi txarra, euria edo eguzkia egon, beti igerilekura joateko desiatzen.

■ **Estetikoki, gogoko duzu igerilarien gorputza?** - Bai, emakume igerilarien gorputza oso polita da, baina sorbalda handiak dituztenak ez ditut atsegin.

■ **Itsasoan ala igerilekuan?**
- Igerilekuan gusturago. Itsasoan gehiago kostatzen zaidala iruditzen zait. Orain sokorrista ikastaroa egin behar dut, hondartzakoa.

■ **Kloro usaina kentzeko?** - Ezin izaten dut kendu. Gainera alergia ematen dit kloroak, ezema antzeko

zerbait irtetzen zait gorputzean. Crema mordoan ematea komeni zait eta horrela kloro usaina disimulatzen da zerbait.

■ **Zenbat irauten dizu bainujantzi batekin?** - Hiru bat hilabete.

• Adina: 15
• Bainujantziaren kolorea: Beltza
• Eta gorroarena: Taldearena, urdina
• Zure burua arrain batekin parekatzekotan? Delfinarekin



MATRIKULA IREKIA

Eskaintza bereziak EGA eta ALFABETATZERako

Astean 6,8 edo 10 ordu

Langabetu eta ikasleek MATRIKULA ERDIA

Nafarroa enparantza, 2 • Elgoibar • ☎ 74 27 31



Harategi Urdaitegia

San Bartolome, 16. ☎ 74 06 40

Bailarako ikastarorik merkeenak eskaini ditu Udak Kirol Zerbitzuak udako kanpaina

Datorren asteburuan amaituko da ofizialki uztailean hasi zen udako kirol kanpaina.

Hamazortzi ikastaro helduentzat, dozena inguru ikastaro haurrentzat,

asteburuko irteerak... non aukeratu behintzat ez da falta izan. Udak Kirol Teknikariaren balorazioa “erabat positiboa da ikastaroen kalitate eta kopuru aldetik, baita herritarren partaidetza aldetik ere”.

Bostehun pertsonak baino gehiagok hartu du parte udan honetan Udak antolatutako kirol ihardueraren batean. “Iaz, partaidetza horren handia zela ikusita, bosgarren edizio honetan partaidetza beherantz egingo zuela edo bere horretan mantenduko zela uste genuen”. Baina datuen arabera ez da hala izan. Tenisean eta eskaladan, esate baterako, iaz baino talde gehiago osatu dira eta tenisean izan da ikastarotik kanpo geratu denik. “Haurrak, gazteak zein helduak, adin guztietako jendea izan dugu”.

Emakumeak inoiz baino gehiago izan dira aurten. Kirol Teknikariak emakumeen partaidetza azpimarratu du. “Hambost urtetik gora kirola



egiteari uzten zaio normalean, emakumeen artean batez ere, eta aurten, ordea, adin horretako emakume asko izan ditugu ikastaroetan”.

Kalitate altua

Ikastaro guztietan irakasleko kualifikatua eskaintzen ahalegindu da Udala. IVEF egiten dihardutenak edota lizentziatuak izan dira monitore lanetan jardun dutenak “eta horrek erantzuna izaten du jendearen partaidetza alde-

■ ■ Eskaladak gorakada izan du aurten. Tenisa, urtero bezala, jende gehien erakarri duen ikastaroa izan da.

tik”. Kalitate-prezio erlazioari dagokionez “bailara osoko ikastarorik merkeenak Elgoibarkoak dira. Ikastaro askoren prezioa ez da 1.000 pta.ra heltzen eta iraupea gainera, hilabetete osokoa izaten da”. Kan-

painaren aurrekontua 2.500.000 ingurukoa da, materiala eta 15 monitoreen kostua ordaintzeko erabiltzen dena.

Aurten lehen aldiz, naturarekin harremanetan burutzen diren kirolen aukera zabala eskaini du Udak eta erantzuna hauetan ere “benetan jendetsua izan da”. Kayak, piraguismoa, rafting-a, kainoi jaitsiera eta puenting-a izan dira aurten berrikuntzak. Dena den, urtero bezala jende gehien erakarri duen kirola tenisa izan da, eta ondoren eskalada.

Bostehun lagunetik gora aritu da aurtengo udan Udak antolatutako udako kirol kanpaina

Mendi travesia

Morkaiko Elkarteak Iparla mendira travesia antolatu du iganderako, hilak 24. Nafarroa eta Nafarroa Beherean, hainbat txoko ezagutzeko aukera eskainiko du irteerak. Mendizale guztiak Plaza Handian elkartuko dira goizeko 7etan Iparla mendirantz abiatzeko.

Ehiza Txapelketa larunbatean San Migelen

Larunbatean, hilak 23, goiz osoan zehar burutuko da La Unión-ek San Migeleko Mendibeltzun bazkide eta herritarrentzat antolatutako faisai txapelketa. Beharrezkoa izango da ehiza-baimena, Federazioko lizentzia eta aseguru edukitzea. Partaide bakoitzak laguntzaile bana eramane beharko du eta goizeko 8etan La Unión-en aurkeztu beharko dira. Sari banaketa ekitaldia San Migelen izango da eguerdiko ordubatean.



Deba Beheko eta Garaiko zenbait udalerritako Udala Kirol eta Euskara Zerbitzuek burutzen duten "Kirola eta Euskara" programa martxan jartzeko lehen bilera izan zen pasa den ostiralean Elgoibarren. Udazkenera begira, ikastaroen eskaintza berria eta material didaktikoa euskaraz sortzeko beka prestatzeko asmotan bildu ziren Deba, Eskoriatza, Eibar, Aretxabaleta, Bergara, Arrasate eta Elgoibarko Udaletako teknikariak. Ikastaroen artean patinaia izotzean, txirrindularitza, atletismo epailea... eta beste zenbait eskainiko dira. Lehen bileraren ostean, Mintxetako zelaian futbol partidua jokatu zuten Udala teknikariek. Hemen ditugu argazkian, atsedendikiko une batean.



I. MORKAIKO ARGAZKI LEHIAKETA

- Gaia: Mendia
- Neurria: Librean
- Koloretan nahiz zuri-beltzean
- 4 argazki gehienez
- Elgoibartarrei eta Morkaiko M.E.ko bazkideei (Elgoibarkoa ez bada) zuzendutako lehiaketa.
- Argazkiak entregatzeko epea: abenduak 1 (Morkaiko M.E.n)

OHARRAK:

- Argazkien atzealdean non eta noiz ateratakoak diren jarri behar da.
- Argazkiak sobre edo kartazal handi batean sartu behar dira. Bertan kartazal txiki bat sartu behar da egilearen izen eta abizenekin eta telefonoarekin. Argazkietan eta sobre txikian ezizena jarri.
- Argazkiekin erakusketa egingo da.
- Sari banaketa abenduaren 26an izango da.

Rock kontzertua, idi demak, bertsolariak eta gaupasa San Migel auzoko jaietan



San Migel auzoan jaiak ospatuko dituzte hilaren 23tik aurrera. Patrioiaren eguna datorren larunbatean, hilak 29, ospatuko duten arren, asteburu honetan, larunbatean hain zuzen, hasiko dira jaiak. Orain arte antolakuntzan aritu diren 70 auzotarrei 25 bat gazte batu zaizkie aurten eta hauen eragina igarri da jai egitarauan. Rock kontzertua, gaupasa, idi demak eta bertso jaialdia dira aurtengo jaietan ekintzarik azpimarragarrienak. Aukera egon badago, norberak gogoia baino ez du jarri behar.

Gazteen eguna ospatuko dute sapatuan, auzoko gazteek antolatutako egunean. Ehun Kilo elgoibartarrak, Taupada markinarrak eta Trikitixa Kontrairo gasteiztarrak izango dira egun honetan, gaueko 11etatik aurrera San Migeleko frontoian. Sarrera doan da eta inguruko herrietako gazteak,

bizkaitarrak, gipuzkoarrak zein arabarrak ere bai, San Migelera hurreratzea dute helburu. Kontzertua ezezik, lagunarteko bazkaria ere izango dute eguerdian eta txikitxoentzat jolasak eta txokolate jana izango da arratsaldean.

Santuaren egunari, hilaren 29an, meza nagusiarekin emango zaio hasiera. Bertsolariak eta

trikitilariak goizean zehar eta Haritz dantza taldekoen saioa eta EGAN taldearen kantaldia izango dira gauean. Larunbat gauean, hilak 30, idi demetan sari garrantzitsuak banatuko dira: 125.000 pta. lehenarentzat, 110.000 pta. bigarrenarentzat eta 100.000 pta. hirugarrenarentzat. Ondoren izango den bolo txapelketan sariak irabazteko aukerarik ere egongo da eta nahi dutenek edo ahal dutenek, behintzat, hurrengo egunera arte parrandan ibiltzeko aukera izango dute Luhartz taldearen konpainian. Urriaren 1ean, berriz, Lizaso, Egaña, Peñagarikano, Sarasua, Iturriaga eta Iratxe Ibarra bertsoan arituko dira arratsaldeko 5etik aurrera.

Bi milioiko aurrekontua

Jai inportanteak antolatu ohi dituzte sanmigeldarrekin, ez bakarrik ekintzen barietateagatik, antolatzeko behar den diruagatik ere bai. Lau jai egun dira orotara, eta gastua denera bi milioikoa. Gazteen eguneko aurrekontua esate baterako, 650.000 pta.koa da. Diru sarrerentalean, Udalaren laguntzaz aparte, tabernatik, idi demak ikusteko jartzen duten sarreratik eta bertso jaialdiko sarreratik lortzen dute dirua. Antolatzaile batek esan digunez, "parra egiteaz gain, 70 lagunentzako afaria egiteko moduan izaten gara gainera".

JAI EGITARAUA

23, LARUNBATA 13,00: Ehiza

Txapelketaren sari banaketa.

14,30: Auzoko gazteen bazkaria trikitilariekin. **Arratsaldean**, jolasak eta txokolata auzoko txikitxoentzat.

23,30: Rock kontzertua: Ehun Kilo, Taupada, eta Trikitixa Kontrairo.

29, OSTIRALA San Migel eguna

11,30: Meza Nagusia Ziarda eta Meabe bertsolariekin.

Segidan bertsolariak eta Zabaleta eta Iker trikitilariak.

22,30: HARITZ dantzari taldea.

Segidan EGAN taldea.

30, LARUNBATA

22,00: Idi demak Bikoteak: Belarreta, Iketza eta Artadialde.

Ondoren, gaupasa Luhartz taldearekin.

01,00: Bolo txapelketa

1, IGANDEA

11,30: Meza Nagusia.

Ondoren, XII. Pilota Txapelketaren azken partidua.

17,00: Bertso jaialdia Lizaso, Egaña, Peñagarikano, Sarasua, Iturriaga eta Iratxe Ibarrarekin.

Egun guztian zehar IPARRAGIRRE trikitilariak arituko dira.

Lehiaketak

JOSE MARIA ARIZMENDIARRIETA X. LEHIAKETA antolatu du Gizabide fundazioak. Irakaskuntza ertainetan ari den edozein ikaslek har dezake parte. Oinarriak ikastetxean bertan eskura daitezke. Lanak azaroaren 7rako aurkeztu behar dira "Larrin Plaza, Aretxabaleta" helbidean.

XII. Mari Karmen Alzueta Saria **ERREPORTAIA LEHIAKETA** antolatu du Santo Tomas Lizeoak. Bi maila daude: 1995-96 ikasturtean Lehen Hezkuntza edo OHoko Goi Zikloa egiten ari direnentzat eta 1995-96 ikasturtean irakaskuntza ertainean ari direnentzat. Erreportaiaren gaiak Xenofobia edo aiton-amonak dira. Aurkezteko epea: azaroaren 16ra arte, Santo Tomas Lizeoa Ikastola, Manuel de Lardizabal 24, 20.009. Donostia.

BIZENTA MOGEL 14. IPUIN LEHIAKETA antolatu du Azkoitiko kultur elkarteak. 18 urtetik gorakoentzat da eta idazlanek lau eta hamar orri bitartekoak izan behar dute. Epea: urriaren 31.

Ikastaroak

KUTXAK AULA GAZTEAren berri eman du. Urritik aurrera honako ikastaroak emango dira: ikasketa teknikak, enplegu teknikak, ahozko eta idatzizko komunikaziorako teknikak, Autoenplegua eta Enpresen sorrera, sukaldaritza, Informatikaren zenbait aplikazio, Lankidetzak, Ingurugiro hezkuntza eta Astronomia. Informazio gehiago Kutxaren bulegoetan.

Jaiak

Asteburu honetan **SAN MIGEL AUZOKO JAIK** ospatzen dira. Bihar, larunbata, gazteen eguna izango da. Eguerdian bazkaria izango da auzotarrentzat eta gauean hurreratu nahi duten guztientzat rock kontzertu aparta Taupada, Trikitixa Kontrairo eta Ehun Kilo taldeen eskutik.

Sigmako gazteen txokoa

Kalean bizi diren askorentzat nahikoa aparte geratzen den auzoa da Sigma. Bertan jaio eta bizi direnek, ordea, ez dute iritzi berdina. Are gutxiago orain lau urte inguru gazteentzat lokal berezia martxan hasi zenetik.



Garai batean eskola kokatu zen lokala eskuratzea okurriritu zitzaizen auzoko gazteei. Honela bada, "ocupa" gisa sartu eta txukuntzen hasi ziren. Gaur egun Sigman dauden lau kuadrilek lokal bana dute. "Txiringo" izeneko gelan izan ginen. 19 mutil gaztek osatutako koadrila elkartzen da gela honetan. Hauek behintzat ezin dira kexatu: telebista dute, antena parabolikoari esker 40tik gora kate jasotzen dituzte, Canal Plus ere badute, bideoa, musika entzuteko aparatua, mahai eder bat, barra eta guzti... Lokalean ematen dute denbora libre guztia. Aitortu digutenez, etxean baino denbora gehiago pasatzen dute bertan. Neguan, igandeetan, partidua ikusteko elkartzen dira, txokolata eta txurroak jan eta txatxaran gustura ematen dute arratsaldea. Bat edo batek urteak betetzen dituenean ere bazkaria egiten dute bertan eta Gabon Zahar gauean, familiarekin afaldu eta gero, lokalera joan eta lokalean ematen diote ongi etorria urteari. Hilero diru kopuru bat jar-

tzen du kide bakoitzak kutxan eta horrezaz gain, Eusko Jaurlaritzan eskaera egin berri dute dirulaguntza bat jasotzeko eta auzotarrentzat hainbat ekintza burutzeko, hala nola, pilota txapelketak, mus txapelketak eta abar. Komunikere badago, sukalde txiki bat dute, bizikletak gordetzeko garajea eta, esan digutenez, batzuen afizioa dela eta, txoko txiki bat egokitu dute txoriak hazteko. Ez zaie ezer egin zieten eta lokala uzteko agindu. Gazteek ez zuten amore eman eta handik inor ez zen agertu. Bertan jarraitzen dute. Udalak argindarra ordaintzen du eta beste zerbaiten beharra izanez gero, pintura adibidez, eskatu besterik ez dute. Altzariak etxetik eraman dituzte edo kalean botata ikusi eta beraientzat hartu. Batetik eta bestetik gauzak bilduz egokitu dute gazte hauek beraien txokoa. Kalean bizi? Zertarako? Hauek behintzat ez diote kaleko gazteei inbidiarik. Ziur kaletar batek baino gehiagok eskertuko lukeela horrelako txoko bat lagunekin egon ahal izateko.

Salerosketak

KANPING BAT SALTZEN
DUT. 3 plaza. 5.000 pta.
Berria.
☎ 74 37 34 Nuria

BI EDREDOI 90cm.koak
SALGAI. Estrenatu gabe.
Merke.
☎ 74 33 24 Maite

PASIAKARO BIZIKLETA
BAT saltzen dut. Egoera
onean eta saskiduna.
☎ 74 04 86

OPEL KADET GSI 2.0
txuria salgai. SS-4478-AD,
Oso egoera onean.
☎ 75 50 33

HAUR KOTXE INGLES
BAT saltzen da 23.000
pta.tan. (Kuna, kotxe estalkia
eta bainera oparitzen dira)
☎ 75 61 71

ESKOPETA REPETIDORA
BAT erosiko nuke. P.
Beretta edo antzerakoa.
☎ 74 15 35 Alberto

MTB Camondale 94 T. 48
XTR motorra saltzen dut.
☎ 75 62 43 (1,30-15,00)

Etxebizitzak

ETXE BAT daukat
alokatzeko, amueblatua eta
igogailuarekin.
☎ 74 09 44

2 EDO 3 GELAKO ETXE
BAT alokatu nahi nuke.
Amueblatu gabe eta
igogailuarekin.
☎ 74 21 99 Txaro
Bulego orduetan

ETXEBIZITZA BAT
SALTZEN DUT EULOGIO
ESTARTAN. Egoera oso
onean dago.
☎ 74 10 46 Maite
(Gauetz 10etatik 11etara)

Ingelesko irakasle bat nazi
eta alokairuan dudan
ETXEA KONPARTITUKO
NUKE
☎ 74 24 99 Antonia

Ingelesko irakasle batek
LOGELA BAT eta pentzio
osoa edo sukaldean ibiltzeko
aukera nahi ditu. (9
hilabetez)
☎ 42 84 06 / 74 02 36
Richard

Lana

Neska bat ETXEKO
EDOZEIN LAN EGITEKO
PREST dago.
☎ 74 33 24 Maite

Eibarren
KONTSULTARAKO
PRESTATUA DAGOEN
LOKAL BAT alokatzen da.
☎ 79 85 24 Isabel

Ezin dugulako atenditu,
LOGOPEDIA ZENTROA
alokatzeko da Eibarren.
☎ 79 85 24 Isabel

ANDRE BAT BEHAR DA
bi pertsona nagusi zaintzeko.
Goizeko 9etatik gaueko 9ak
arte.
☎ 74 29 30

Emakume bat ETXEKO
LANAK EGIN,
NAGUSIAK ZAINDU ETA
ABAR... egiteko prest dago
☎ 75 62 57 Mari Karmen

Mendaroko baserri batean
GAIXO BAT ZAINTEKO
andre bat behar da egunean
ordubeterako.
☎ 75 04 41

Garajeak

GARAJE BAT
ALOKATZEKO daukat San
Roken.
☎ 74 17 95

Partikularrak

OHOko KLASE
PARTIKULARRAK ematen
ditugu Elgoibarren.
☎ 68 20 42 Maider

Hezkuntza Zientzietan
lizentziatuak (pedagogia) eta
7 urtetako esperientziarekin
OHO, IEE eta HSAOLEko
klase partikularrak emango
ditu euskaraz eta erderaz.
☎ 74 39 24 Maite

MARRAZKI TEKNIKO
ETA DIEDRIKO
KLASEAK ematen ditut.
☎ 74 43 98 / 74 34 01 Iñaki

MATEMATIKA, FISIKA
ETA KIMIKA klaseak maila
guztietan ematen ditut.
☎ 74 43 98 / 10 27 82
Marian, gaueko 9,30etatik
aurrera


MAILA GUZTIETAKO
FRANTSESEKO
KLASEAK ematen ditut..
Enpresetarako itzulpenak eta
interpretazioak ere bai.
☎ 74 04 59 Jacqueline
(13,00-14,30 eta gauetz
20,00etatik aurrera)

Bestelakoak

Ikastolako hirugarren
mailako haurrek 6
ENTRENATZAILE behar
ditugu lehenbailehen. Bi
saskibaloirako, bi
eskubaloirako eta beste bi
futbolerako.
☎ 74 31 81 / 74 12 31

KARITASek
FRIGORIFIKO BAT
BEHAR DU.
☎ 74 15 09 - 74 12 57

PREMIAZKO TELEFONOAK



OSASUNA

Anbulategia:
Larrialdiak.....461111
Txanda hartzeko.....743354
Planning-a742950
Alkoholiko Anonimoak..740385
D.Y.A (anbulantzia) ..464622
Gurutze Gorria.....743864
Mendaroko Ospitalea756264
Drogomenpekotasun Z.741008
Odol Emaileak743936

GARRAIOAK

Eusko Trenbideak.....740442
PESA (Eibar).....102131
Taxi geltokia.....740898

UDALA

Euskara Zerbitzua.....744366
Kirol Zerbitzua744415
Kultura Zerbitzua.....742158
Mendaroko Udala756100
Ongizate zerbitzua...743736
Udaletxea741050
Udaltzaingoa741394

BESTELAKOAK

Caritas740142
Elgoibarko Izarra.....741626
IMI.....741196
Kontsumo Bulegoa ...743088
Liburutegia743525
Musika Eskola742145
Mintxeta744315
Parrokia.....740842
Polikiroldegia741361
Postetxea.....741547

HIRUGARREN ADINA

San Lazaro Egoitza...740296
Zaharren Biltokia.....740526

IKASTETXEAK

Herri Eskola74 08 79
I.M.H.74 41 32
Instituta74 02 67
Ikastola74 44 41
L.H.I.....74 44 80
Pilar Ikastetxea74 13 31

KOMUNIKABIDEAK

BARREN.....74 41 12
El Diario Vasco74 40 73
El Mundo74 27 59
El Correo Español...74 10 82
Egin.....10 84 21
Deia74 11 57
Zazpiki74 34 74

22 OSTIRALA

22,15 ZINEA
"Kalifornia"
Sarrera: 400 pta.

23 LARUNBATA

9,00 EHIZA TXAPELKETA
✓ Mendibeltzun (San Migel)
Antolatzailea: La Union

11,30 ZAZPIKIREN BILERA
Zazpikiren lokalean

19,30-22,15 ZINEA
"Kalifornia"
Sarrera: 400 pta.

22,00 GAZTE ASANBLADAREN ZOZKETA
✓ Lanbroa atzean ("Toki"n)
Ondoren, diapositiba emanaldia
Gaia: Gaztetxearen eraisketa

22,30 BANDAREN KONTZERTUA
✓ Plaza Handian

24 IGANDEA

07,00 IPARLA MENDIRA IRTEERA
✓ Irteera: Plaza Handitik
Antolatzailea: Morkaiko M.E.

16,30 ZINEA
"El libro de la selva"
Sarrera: 250 pta.

19,30-22,15 ZINEA
"Kalifornia"
Sarrera: 400 pta.

25 ASTELEHENA

22,15 ZINEA
"Kalifornia"
Sarrera: 400 pta.

26 ASTEARTEA

20,00 HBren HITZALDIA
Gaia: "Euskal Herriakbizi behar du"
Hizlaria: Arnaldo Otegi
✓ Kultur Etxean
Antolatzailea: Elgoibarko HB

22,15 ZINEA
"El libro de la selva"
Ikuslearen eguna
Sarrera: 300 pta.

29 OSTIRALA

22,15 ZINEA
"Dos policías rebeldes"
Sarrera: 400 pta.

txandak

FARMAZIAK:

DATA	EGUNEZ	GAUEZ
23, larunbata:	Bidasolo	Escala
24, igandea:	Bidasolo	Escala
25, astelehena:	Yudego	Bidasolo
26, asteartea:	Yudego	Bidasolo
27, asteazkena:	Yudego	Yudego
28, osteguna:	Ormazabal	Bidasolo
29, ostirala:	Ormazabal	Bidasolo

FARMAZIEN HELBIDEAK:

Escala: Recalde, I. Soraluze
Te. 75 16 38

OKINDEGIA:

24, igandea: BOUTIQUE DEL PAN

ZineA



Kalifornia

Zuzendaria: Dominic Sena
Antzezleak: Brad Pitt, Juliette Lewis,
David Duchovny.

Psikopata hiltzaile bat eta arazo emozionalak dituen bere emaztegai gaztea eta hiriko bikote moderno baten arteko harremana kontaktzen du pelikulak. Modernoak itxuraz arruntak dira. Mutilak hiltzaileei buruzko idazteko zaletasunak bultzatuta, krimenak lekuan ikustea du gogoko. Sexua, heriotza eta gaizkiari buruz zerbait dakitela uste duten horietakoak dira. Bukaeran zera planteiatzen da: benetako gaiztoak hiltzaileak ala heriotzarekin disfrutatzen dutenak diren.



El libro de la selva

Zuzendaria: Stephen Sommers.
Antzezleak: Jason Scott Lee, Cary Elwes, Sam Neill.

Ruyard Kipling-en nobela ezaguna hainbat aldiz pantailaratu da. Oraingoan gizakien eta animalien arteko maitasun harremana kontaktzen da. Errodaian 50 animalia baino gehiago erabili zituzten, guztiak hezitakoak. Txikientzako pelikula dibertigarria da eta nagusientzako bitxia.



PAPERDENDA BULEGO MATERIALA

San Bartolome, 7
Telefonoa/Faxa: 74 43 41
20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)



ASISTENTZIA

- ▼ Papergintza teknikoa
- ▼ Papergintza orokorra
- ▼ Bulegorako makinak
- ▼ Marrazketa ekipoak
- ▼ Altzariak
- ▼ Erlojugintza industrialia
- ▼ Segurtasun kutxak
- ▼



Sonia

DANTZA ESKOLA

Errosario, 31 • Tel. 74 38 39/10 18 37 • ELGOIBAR



Ballet klasikoa • Dantza kontenporanea • Mantenuko gimnasia • Gorputz espresioa



ERREMINTA
MAKINA
INSTITUTUA

ERREMINTA
MAKINA
INSTITUTUA

HIZKUNTZ IKASTAROAK

95-96 IKASTURTERAKO MATRIKULA ZABALIK

■ HIZKUNTZAK ■

Ingelesa, Frantsesa, Alemana

■ AZTERKETAK ■

Cambridge azterketetarako
prestakuntza
(PET, FCE, CAC, Proficiency)

■ ORDUTEGIA ■

Arratsaldez

■ DATA ■

Urriaren 2tik aurrera



Hizkuntz laborategia.



INFORMAZIOA ETA MATRIKULA:

ILS (INDUSTRY LANGUAGE SERVICES)
IMH ERAIKUNTZA San Roke Auzoa, 1. 20870 ELGOIBAR.
Tel.: 74 40 40 Fax: 74 16 54

IKASTARO TRINKOAK

■ DATA ■

Urriak 2 - Abenduak 21

■ MAILA ■

Erdimaila

■ ORDUTEGIA ■

Astelehenetik ostegunera

630-8,30 (84 ordu)

(FIRST CERTIFICATE MAILA)